



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gratu Amaierako Lana

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015/2016 ikasturtea**

### **HAUR SEXUALITATEA ETA HEZKUNTZA SEXUALA HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAN LANTZEAREN INTERESA**

**Egilea: Sara Caballo Martín**

**Zuzendaria: Inge Axpe Saez**

**Leioan, 2016ko maiatzaren 31an**

© 2016, Sara Caballo

**ZUZENDARIAREN ONIRITZIA**

**EGILEAREN ONIRITZIA**

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	3
<b>1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala</b> .....	4
1.1. Hezkuntza sexualaren beharra, sexualitatearen eta hezkuntza sexualaren gaur egungo egoeran oinarrituta.....	4
1.2. Haur sexualitatea (0-6 urte) .....	5
1.2.1. Haurren sexualitatearen bilakaera.....	5
1.3. Hezkuntza sexualaren eragileak .....	7
1.3.1. Gizartea.....	7
1.3.2. Familia .....	8
1.3.3. Eskola .....	9
1.4. Hezkuntza sexualaren justifikazio legala.....	10
1.5. Hezkuntza sexuala Haur Hezkuntzako bigarren zikloan .....	11
1.6. Hipotesiak.....	13
<b>2. Metodologia eta lanaren garapena</b> .....	14
2.1. Tresna .....	14
2.2. Parte hartzaileak.....	15
2.3. Prozedura .....	15
<b>3. Emaidzak</b> .....	16
3.1. Lehenengo blokearen emaitzak .....	16
3.2. Bigarren blokearen emaitzak .....	20
<b>4. Ondorioak</b> .....	22
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	25
<b>ERANSKINAK</b> .....	28

## **HAUR SEXUALITATEA ETA HEZKUNTZA SEXUALA HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAN LANTZEAREN INTERESA**

**Sara Caballo Martín**

UPV/EHU

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrak (3-6 urte) sexualak dira, baina haien sexualitatearen inguruko ikerketa gutxi dago. Horregatik lan honen bidez horretan sakondu nahi izan da, ikerketa kualitatiboa eginez. Haur Hezkuntzako 30 haur indibidualki elkarrizketatu dira, 3 irakasleekin batera. Haurren zein irakasleen erantzunek argi utzi dute HHko haurrak izaki sexualak direla, eta sexualitatea haurren identitatearen dimentsio garrantzitsu eta ukaezin bat dela. Hortaz, hezkuntza sexuala eskolan lantzea beharrezkotzat jo da, azken finean, hezkuntza sexuala eskaintzearen arduradun nagusienak, gizartea, familia eta eskola baitira. Hiruren arteko elkarrekintzan, haurrei haien sexualitatea era positiboan garatzen lagundu behar diete; sexualitateak eskaintzen dituen posibilitate guztiez askatasunez eta naturaltasunez goza ditzaten.

*Sexualitatea, hezkuntza sexuala, Haur Hezkuntza, beharra, generoa*

Los niños y niñas de segundo ciclo de Educación Infantil (3-6 años) son sexuados/as, sin embargo, existen pocas investigaciones relativas a la sexualidad infantil. Mediante el presente trabajo se ha intentado profundizar en dicho tema, realizando una investigación cualitativa. Las entrevistas realizadas individualmente a 30 niños/as y 3 profesoras han dejado constancia de la sexualidad del alumnado de Educación Infantil, así como la importancia de dicha dimensión incuestionable de su identidad. Así, concluyendo la importancia de trabajar la educación sexual en la escuela, ya que ésta es, junto con la sociedad y la familia, una de las responsables de la educación infantil. La coordinación entre estas instancias debería permitir el desarrollo positivo de la sexualidad infantil, en todas su posibilidades, facilitando que el alumnado la viva con libertad y naturalidad.

*Sexualidad, educación sexual, Educación Infantil, necesidad, género*

The children of the second cycle of Pre-school Education (3-6 years) are sexed; nevertheless, there exist few investigations in relation to the infantile sexuality. By means of the present work it has been tried to go more deeply in the topic mentioned above, making a qualitative research. The interviews realized individually to 30 children and 3 teachers, have clarified that the Pre-school Education children are sexual as well as the importance of that unquestionable dimension of their identity. This way, it have been concluded the importance of working on the sexual education in the school, since it is, together with the society and the family, one of the responsibilities of the Pre-school Education. The coordination between this three promoters should allow the positive development of the infantile sexuality, in order that the students enjoy freely and naturally all the possibilities that the sexuality offers.

*Sexuality, sexual education, Pre-school Education, need, gender*

## Sarrera

Zer da sexualitatea? Haurrak sexualak dira? Askorentzat erantzutea zail egiten zaien galderak dira, baina lan honetan zalantza horiei Haur Hezkuntzako (HH) bigarren zikloko ikasleek (3-6 urte) eta zenbait irakaslek aurre egingo diete. Hezkuntza berritzaile bati bidea irekiz, gaur eguneko egoerarekin bat egiten duena. Izan ere, bikote homosexualak gero eta onartuago daude, familia dibertsitate handiko garaia da, genero berdintasunaren aldeko posturak ikusten dira...

Aitzitik, ez da bide erraza; izan ere, mendebaldeko kulturaren haur sexualitatearen existentzia oraindik zenbait kasutan ukatzen da, eta zailtasun etikoak direla eta, ikerketa gutxi daude haur sexualitatearen inguruan (López, 2009). Zailtasunak zailtasun, gizakia jaiotzen denetik, izaki sexuala da. Hortaz, jakinda HHko 2. zikloko haurrak sexualak ere izango direla, haien sexualitatea nolakoa den ikertu nahi izan da, hori hobeto ezagutzeko.

HHko haurrak izaki sexualak direla jakinda, eskolak sexualitateaz arduratu beharko zen ere, hasierako hezkuntzatik hasita. Hala ere, ez dirudi askotan HHn horrelakorik egiten denik. Beraz, bi helburu nagusirekin aurrera eramango da ikerketa lan hau: HHko haurren sexualitatea ezagutzea, eta HHko geletan hezkuntza sexualaren beharra dagoen ikertzea.

Helburu hauek betetzeko, hurrengo orrialdeetan lehenik eta behin, sexualitatea bera zer den, eta haurren sexualitatearen inguruko informazioa eskaintzen da, bilaketa bibliografiko sakon baten emaitza dena. Ondoren, ikerketa lana gidatu duten hipotesiak agertzen dira, bai eta ikerketa bera egiteko aurrera eraman izan den prozedura, erabili den tresna (taldeko eta banakako elkarrizketak) eta aukeratu diren parte-hartzaileak, denak Galdakaoko (Bizkaia) udalerriko ikastetxe publiko baten ikasle edo irakasle izan direnak.

Elkarrizketen bidez jasotako emaitzek argi utzi dute haurren izaera sexuala, bai eta gai honi eskolak arreta eskaintzearen beharra.

Bukatzeke, lanaren ondorioetan haur sexualitateak merezi duen garrantziaz eta onarpenaz mintzatuko da, eta hezkuntza sexualaren beharra azpimarratuko da; haurrek haien sexualitatea positiboa izateko eta askatasunean eta naturaltasunean oinarritutako sexuazio prozesu eta sexualitatea bizi dezaten.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Atal honetan hezkuntza sexualaren beharra azaltzeko, lehenik eta behin sexualitatearen gaiaren inguruko egoeraren azterketa bat egingo da. Ondoren, sexualitatea azalduz, eta amaitzeko hezkuntza sexualaren inguruan argibideak emanaz.

### 1.1. Hezkuntza sexualaren beharra, sexualitatearen eta hezkuntza sexualaren gaur egungo egoeran oinarrituta

Espainiak kultura judeokristautarra oinarrian du (1978 arte ez da estatu akonfesionala izan), eta hortaz, sexualitatearen inguruan ikuspegi negatiboa izan du (López, 2013). XX. mendeko bigarren erdialdera arte Espainian ez da nolabaiteko sexualitatearen inguruan askatasunik ikusi. Gaur eguneko gizartea, arlo sexualean estutzen zuen errepresiotik liberatu da (Iturbe, 2015), baina nahiz eta aldaketak ikusten diren, gizarteak patriarkala izaten jarraitzen du, “eredu sexual”<sup>1</sup> jakin bat transmititzen duena (Camarero, Redondo eta Urruzola, 1987). Horregatik oraindik batzuetan ez dira haurren behar sexualak aintzat hartzen, haur eta zaharren sexualitatea ezeztatzen edo erreprimitu egiten da, txikitatik neska batzuen mundua ezkontzara, etxera eta amatasunera mugatuta ikusten da...

Puritanismotik, XIX. mendetik, aurrera eredu sexuala eta haurrei eskainitako hezkuntza sexuala aldatu da; alabaina, XIX. mendean haurren edozein manifestazio sexual patologikotzat eta aberrantetzat hartzen zen. Kontzepzio hori aldatu den arren, sexualitateak oraindik tabu izaten jarraitzen du (Gómez-Zapiain, d.g); modu inplizituan haurrei “eredu sexual” tradizionala eskaintzen jarraitzen zaie, horrek hezkuntza sexuala egokia ez izatearen arriskuen gailurrera eramanez: indarkeriara. Espainian 2015en genero indarkeriaren ondorioz 56 biktima mortal egon dira, horietatik hiru EAEn, indarkeria fisikoa dela medio (Osasun, Zerbitzu Sozialak eta Berdintasunerako Ministerioa, 2015), eta 2011tik aurrera heriotza tasarik altueneko urtea izan da. Gainera, Ertzaintzak erregistratutako datuetan, genero indarkeria salaketak 2012-2014 urte bitartean euskal nerabe eta gazteetan % 15 igo dela ikus daiteke (Vasco Press, 2014). Ildo beretik, Espainian 124.893 genero indarkeria salaketa egin ziren 2013an, eta horien 964 EAEn izan ziren. Horrekin batera aipatzekoa da EAEn 151 eraso sexual egon zirela eta askatasun sexualeko beste 215 delitu (Ertzaintza, 2013).

---

<sup>1</sup> Eredu sexualen inguruan sakontzeko 1. eranskinera jo.

Horrez gain, indarkeria psikologikoa, patrimoniala, sexu desberdintasuna eta diskriminazioa, biolentzia ekonomikoa, sexismoa, homofobia, erotofobia<sup>2</sup>, bakoitzaren desira eta behar sexualen ezezagutza eta gorputzaren errespetu eta ezezagutza eza ematen diren beste adibide batzuk baino ez dira. Bitartean eskoletako irakasleek, unibertsitateko irakasleek, haurrek eta gurasoek ez dute formakuntza sexual nahikorik bereganatzen, eta gehienetan eskolako haurrei Lehen Hezkuntzatik aurrera baino ez zaie hezkuntza sexuala eskaintzen, sexualitatea eta jarrera sexualak Haur Hezkuntzatik hasten direla ahaztuz. Horrez gain, gaur egungo hezkuntzen erronken artean, Haur Hezkuntza barne, dibertsitate sexuala, emakumeekiko diskriminazioa eta familia aniztasuna daudela aipatzen du Xabier Iturbek (2015). Erronka horien eta Haur Hezkuntzako haurren behar sexual ezeagutu eta asetzaren erronkaren erantzukizuna hezkuntza sexualak du.

Gaur egungo egoeran oinarrituta, haurren izaera sexuala onartzea eta ezeagutzea beharrezkoa da, hori dela eta, premiazkoa da hurrengo atalean bilduta dauden haur sexualitatearen ezaugarriak ezeagutzea.

## **1.2. Haur sexualitatea (0-6 urte)**

Gaur egun oraindik haur sexualitatea definitzeko ezezagutza zientifikoak falta dira. Honi, arlo honen inguruan lan egiten duten profesional desberdinek askotan ikuspuntu kontrajarriak dituztela gehitzen zaio (Blümel, Castelo eta Vallejo, 2005). Horregatik, sexualitatea ezin da ikuspuntu batetik soilik definitu, zientzia desberdinetatik eginiko hurbilpen anizkunen emaitza baita (López eta Fuertes, 1993). Dena dela, haur sexualitatearen inguruan haurrak jaiotzen direnetik sexualak direla esan daiteke (Hernández eta Jaramillok, 2003). Gainera, sexualitatea giza pertsonalitatearen berezko osagai bat da, komunikazioaren, afektibitatearen, plazeraren eta ugalketaren iturri dena. Orobat, sexualitatea haurren oinarritzko behar sozial eta afektiboa da (Bolaños, González, Jiménez, Ramos eta Rodríguez, 1994), jarraian ikusiko den moduan, adinarekin batera aldatzen doana.

### **1.2.1. Haurren sexualitatearen bilakaera**

Jaiotzetik sei urte bitartean identitate sexual eta genero identitatearen eraketa ematen da (Gómez-Zapiain, 2013), eta sexualitatea sentsazio korporalekin eta atxikimendu figurekin harremanetan bizi eta garatu egiten da (López eta Fuertes, 1993). Bizitzako

---

<sup>2</sup> Estimulu sexualen aurrean beldurra edo atsekabea sentitzea.

lehenengo bi urteetan, atxikimendu afektiboa nabarmendu behar da (Jauregizar, d.g.), haurrek pertsona batzuekin binkulu afektibo inkondizionalak sortzeko beharra dutelako (López, 2009). Atxikimendu figura horietatik hartu-eman sexualetan ezinbestekoak diren ezaugarri eta jokatzeko erak ikasiko dituzte: ukitzen, ukituak izaten, begiratzen, begiratuak izaten, komunikatzen eta esaten digutena ulertzen (López eta Fuertes, 1993). Bi edo hiru urterekin bereizketa sexuala egiten hasten dira; haurrak pertsonak bi sexutan edo bi taldeetan banatzen hasten dira. Bi-hiru urterekin, haurrek haien burua bi kategoria horietako batean identifikatzen hasten dira (Gómez eta Esteva, 2006). Horrela, hiru eta sei urte bitartean haurrek identitate sexuala garatzen dute, eta 5-6 urterekin egile batzuen ustez (López, 2009), edo 6-7 urterekin beste batzuen ustez (Iturbe, 2015), identitate sexualaren iraunkortasuna barneratzen dute; hots, sexua bizitza osorako iraunkorra eta aldaezina dela ikasten dute, nahiz eta kanpoko atributuak: janzkera, orrazkera, apaingarriak... aldatu.

Bestalde, aipagarria da haurren identitate sexuala eta genero identitatearen eraketa. Normalean, Haur Hezkuntzan horiek biak nahastu egiten dira. Lehena, identitate sexuala, adibidez zakila edo alua izateagatik mutil-neska kategorian kokatzea litzateke; hau da, sexua biologia edo genitalekin lotzea. Bigarrena, genero identitatea, sexu bakoitzari gizarteak atxiki dizkion ezaugarri, rol, jokabide... barneratzea litzateke. Azken hori, 3 urterekin oso garatuta dago jada: haurrek bere sexuari atxikitako rolaren arabera jostailuak aukeratzen edo errefusatzen dituzte, sexuaren araberako talde bananduak egiten dituzte, eta kontrako taldea gutxiesteko joera dute (Magister, 2011). Lauzpabost urterekin argi dute neskak normalean panpinekin jolasten direla, eta mutilak, aldiz kiroletan (Connor eta Serbin, 1977; Paley, 1984; in Grossman et al., 2005). Bost urterekin sexu bakoitzak zer egin, zer jantzi eta nola sentitu behar den badakite, baita arau horiek betetzen ez duten beste haurren aurrean nola erantzun behar duten (Perrin, 2002; in Grossman et al., 2005).

Haur Hezkuntzan, ohikoena haurrek identitate sexuala genero identitatearekin nahastea da, horrela “neska” edo “mutila” izatea aldagarriak diren ezaugarriekin lotuz (ilearen luzaera, janzkera, erabilitako jolasak...). Hala ere, etapa honen bukaeran 5-6 urteren inguruan, identitate sexual eta genero rolaren arteko bereizketa egiteko gai dira (López, 2009).

Haurren sexualitatearen beste ezaugarri bat autoerotikoa eta egozentrikoa dela da (norbere gorputzean zentratua dagoela); ahaztu gabe sentsibiltate gehien duten zona erogenoak ez direla zertan genitalak izan behar (Gómez-Zapiain, 2013). Aipatzekoa da

ere, haurren sexualitatea ez dela guztiz maskulinoa, ezta femeninoa ere<sup>3</sup>, alabaina, pertsona guztiek maskulinitasunari lotutako hazpegiak eta feminitateari lotutako hazpegiak dituzte (Iturbe, 2015).

Halaber, haurrek haien sexualitatea adierazteko manifestazio sexualak izaten dituzte<sup>4</sup>. Hiru-lau urterekin sexualitateari buruzko interesa adierazten dute (galderak egiten dituzte, ugalketaren inguruko teoriak egiten dituzte...) eta zenbait jokabide sexual dituzte; adibidez, norbere gorputza arakatzeko eta ukitzeko. Jokabide horiek izatera bultzatzen dituzten motibazioak, nagusiki, kuriositatea asetzeko, bere gorputza eta bestena ezagutzeko, imitazioa eta plazeraren bilaketa dira (Lopez eta Fuertes, 1993). Haurren jokabide sexual hauek espontaneoak izaten dira, adierazpen horiek, adibidez, publikoan masturbatzea, arau sozialekin bat egiten ez dutela jakin gabe (López, 2009). Haatik, hiru-lau urterekin jokabide sexualak intimitatean egin behar dituztela ikasten dute, eta 4-5 urterekin jokabide sexuala arautzen hasten dira: badakite noiz eta non bideratu behar dituzten jokabide horiek (autokontrola dute), horregatik jende aurrean jokabide sexual gutxiago dituzte (López, 2009). Dena den, arautzearen behar hori, kanpotik (helduengandik) jasotako debekuetan oinarritzen da, hasieran haurren moralak, 6-8 urte izan arte, aurrekonbentzionala baita. Hau da, HHko haurrek, 2-6 urte bitartean, haien jokabide autoerotikoak arautzen ikasiko badute ere, arautze hori ez da arau propioetan oinarrituko, baizik eta helduek ezarritakoetan, askotan helduen arau eta debeku horien arrazoia ulertu barik: “Su moral es, pues, heterónoma, ajena a ellos mismos.” (López eta Fuertes, 1993: 55.orr).

### **1.3. Hezkuntza sexualaren eragileak**

Jakinda haurrek sexualak direla eta ezaugarri sexual batzuk dituztela, sexualitate horretan eragin dezaketen hiru hezkuntza eragile nagusiak aztertzea komeni da.

#### **1.3.1. Gizartea**

Haurrek gizarteak bere sexurako kontsideratzen dituen jokabideak barneratzen ditu (Magister, 2011), eta azaldu den moduan, gaur egungo egoera eta kultura androzentrikoan bizitzeak hezkuntza sexual sexista bereganatzeko arriskua dakar, hezkuntza sexuala kalean ikasten delako (Bolaños, González, Rodríguez eta Rodríguez,

---

<sup>3</sup> Haurren sexualitatearen inguruan sakontzeko, 2. eranskinera jo.

<sup>4</sup> Haur sexualitatean eragina duten faktoreen eta haurren manifestazio sexualen inguruan azalpen gehiago eskuratzeko 3. eranskinera jo.



2008). Hurrek telebista, filma, ipuin, jostailu eta jolasen kontsumitzaileak dira, eta horietatik ikasten dute (Bolaños et al., 2008). Ez da ahaztu behar horiek guztiak enpresek eta multinazionalak helburu eta balore komertzial batzuekin sortu dituztela: sexismoa, indibidualismoa, oldarkortasuna... (Bolaños et al., 2008).

Eskolan eta familian isiltasuna gordetzen den bitartean, gizarteak hezkuntza sexuala ematen jarraitzen du, haurtzaroa arriskuan jarriz (López, 2005). Hortaz, hezkuntza sexuala komunitate osoaren konpromisoa denez, gurasoek eta eskolak hezkuntza sexualaren arduradunak ere badira (Padrón, Fernández, Infante eta París, 2009).

### 1.3.2. Familia

Familia kide gutxiko erakunde soziala da, hezkuntza sexualaren eragile, eredu eta arduradun garrantzitsua<sup>5</sup>. Familiak hezkuntza indibiduala eta pertsonala eskain dezake, haurren lehenengo harreman estua (edo inkonditziionala) bertan sortzen baita (Ferren, 1988). Familiaren eragina haurren garapenean, orientazioan eta hezkuntzan erabakigarria da, (Ferren, 1988) hurrei gizarteak erakusten ez duen beste eredu bat eskainiz.

Dena den, kontuan hartzekoa da familiako kide bakoitzak jarrera eta jokabideekin rol jakin bat transmititzen duela, gizarteko eredu patriarkalarekin bat etor daitekeena (Camarero, et al., 1987). Haurra horrekin identifikatu egiten da, eta kide horren eredu erreproduzitzera jo dezake. Beraz, beharrezkoa litzateke familikide ezberdinek horren inguruan hausnartzea, ahalik eta eredu berdintsu eta orekatsuen eskaintzeko, sexuen araberako bereizketarik egin gabe.

Halere, haurrak bizitza sexual zorientzua izateko, gurasoek haurra den moduan onartu, maitatu, zaindu eta lagundu beharko dute, haurren identitate sexuala edo orientazio sexuala edozein izanda (López, 2005). Familiak maitasuna eta berdintasuna existitzen dela erakutsi eta esperimentarazi behar diote haurrari, maitatzen irakatsi behar dute (López, 2005).

Hala ere, guraso askok haurraren jokabide sexual eta galderen aurrean isiltasunarekin, era negatiboan edo informazio deformatuarekin erantzuten dute, beldurrez edo lotsaz erantzun dezakete, gaia tabu moduan har dezakete, etxean eredu desegokia eskain dezakete haurraren hezkuntza telebistaren eskuetan utziz, hurrek eskolan hezkuntza sexuala jasotzearen aurkakoak izan daitezke... (López, 1988). Honelakoak ematen

---

<sup>5</sup> Familiak eskaintzen duen hezkuntza sexualaren argibide gehiago izateko 4. eranskinera jo.

direnean hezkuntza sexuala zaildu egiten da, eta haurren garapen integralean eragin kaltegarria izan dezake: autoestimua, autoezagutza, heldutasuneko bizitza sexuala... arriskuan jarriz (Ferren, 1988). Hori dela eta, eskolaren papera garrantzi handikoa da, horrelako kasuetan, bestelako eredu positiboagoak eskaintzeko aukera bermatu beharko lukeelako.

### 1.3.3. Eskola

Eskola gizarte barruan dago; hortaz, eguneroko egoera eta arazoak bere gain hartu behar ditu (Area eta Díaz, 2009), eta familia eta gizartearekin interakzioan eta elkartrukean jardun behar du. Era berean, sexualitatea haurren pertsonalitatearen dimentsio bat da (Hernández eta Jaramillo, 2003) eta haurrak dituen interes sexualak eskolan ere manifestatzen ditu. Horregatik, eskola hezkuntza sexualaren arduraduneko bat ere bada (Magister, 2011). Gainera, eskola gizartearen eraldaketaren elementu aktiboa da (Iturbe, 2015), haurrek bere ideiak adierazteko leku librea, hain zuzen ere. Beraz, eskola tratatu onak erakusteko eta hezkuntza sexuala hasteko leku aproposa da (Iturbe, 2015). Hala eta guztiz ere, eskolako hezkuntza sexualak ez du gurasoen akzioa ordezkatu behar, osagarria izan behar du (Ferren, 1988). Hori dela eta, eskolak familiarekin elkarlanean aritzea, eta gizartearekin kontaktuan egotea ezinbestekoa izango da.

Eskolak izaera instituzionala, zientifikoa eta profesionala du, eta desberdintasun sozialak orekatzeko gaitasuna, berdintasunean hezteko eta irizpide zientifiko eta arrazionalistetan hezteko gaitasuna du (Area eta Díaz, 2009). Erakunde moduan, bere izaerarekin, sexualitatearen inguruan duen ideiarekin, bere barne antolamenduan ematen den hierarkiarekin, apainketekin, kartelekkin, espazio banaketarekin, giroarekin, arauekin... haurrak sexualki hezten ditu. Hortaz, hezkuntza sexuala eskaintzeko horiek guztiak kontuan hartu beharko dira. Heziketa horretan irakasleek eragile oso garrantzitsuak dira, erreferente esanguratsuak dira, beren jokabideekin, haurrei emandako informazioarekin eta erakusten duten ereduarekin. Horregatik, irakasleen jarrera, irekia izan beharko litzateke, “liberal irekia”, hain zuzen ere (López eta Fuertes, 1993)<sup>6</sup>:

Quienes participan de esta actitud aceptan la sexualidad como un hecho humano positivo que ofrece múltiples posibilidades al individuo. [...] Consideran que la educación sexual es un derecho de las personas que no puede negarles la sociedad. [...] Están, en definitiva, abiertos, mental, afectiva y socialmente, a vivir la sexualidad y aceptar que los demás la vivan también, aunque sea de forma distinta a la suya (López eta Fuertes, 1993: 27-28.orr)

<sup>6</sup> Irakaslearen papera nolakoa izan behar duen argibide gehiago jasotzeko 5. eranskinera jo.

Bestalde, aipatu beharra dago eskoletan hezkuntza sexuala lantzeko hainbat zailtasun ager daitezkeela: mistoak ez diren eskolak eta banaketak egitea, Haur Hezkuntzako eskoletan hezkuntza sexualaren inguruan proiekturik ez egitea, ezkutuko curriculumak, non aurreiritziek hezkuntza sexuala gidatzen duten, irakasleen formakuntza urria, ikerketa eta material didaktiko eza... (López, 2009). Beraz, eskolak hezkuntza sexuala eskaintzeko duen ardura hain argia izanik, hori ziurtatzeko eskola arautzen duen dokumentu ofizialetan kontuan hartu beharko du.

#### **1.4. Hezkuntza sexualaren justifikazio legala**

Hezkuntza sexuarentzako egindako munduko adituen topaketan, zenbait erakunde eta asoziazioaren kolaborazioarekin (OMS, UNESCO...), “Educación para la sexualidad con bases científicas” argitaratutako dokumentuan, hezkuntza sexuala giza eskubide bat dela argitzen da:

La educación para la sexualidad ha de ser un elemento obligatorio de la educación para lograr el desarrollo óptimo de cualquier persona desde la primera infancia. La educación para la sexualidad además debe ser comprendida en el marco de los derechos humanos. Recibir una educación para la sexualidad de calidad y con bases científicas es un Derecho Humano, universal e inalienable de todo individuo y, por lo mismo, es específicamente de sus derechos sexuales. (Hurtado, Pérez, Rubio, Coates, Coleman, Corona, Mazín eta Horno 2011; 1. orr.)

Hori azalduta, estatuak eskubide horiek bermatzeko ardura dutenez, behartuta daude hezkuntza sexuala hezkuntza sisteman eskaintzera. Espainia mailan, Espainiako 1978ko konstituzioak bere lehenengo artikuluan askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoaren baloreak defendatzen ditu, eta sexu diskriminazioaren aurkako balorea sustatzen du. LOMCEk (Ley Orgánica 8/2013) balore horiek zehatzago birformulatzen ditu eta printzipiotzat hartzen ditu hezkuntza sisteman txertatzeko eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko. Era berean, Haur Hezkuntzako Curriculumak (237/2015 Dekretua, *Heziberri 2020*), eremu guztietan baloreen hezkuntza horri begirunea eskaintzen dio.

Ildo beretik, Haur Hezkuntzako curriculumak haurren garapen fisikoa, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea du helburu; eta hau lortzeko, garapen sexualari arreta eskaini beharko zaio. Hori dela eta, curriculumak haurren garapen emozional positiboa eta orekatua sustatu behar dela arautzen du, bi sexuen arteko harreman orekatua bultzatzen du eta zenbait estereotipo eta aurreiritzi sexista identifikatzea eta gaitzestea eskatzen du proposatzen dituen artikulua, helburuak, bi esperientzia eremuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak erabiliz. Gainera, jostailuak eta baliabide didaktiko ez-sexista eta bizikidetzat suspertuko duen material didaktikoa

premiatzkoa ikusten du. Era berean, desberdintasunak prebenitzeko, orekatzeko eta errespetatzeko hezkuntza sustatzen du. Baita haurrek haien gorputza esperimentatzeaz eta ezagutzeaz gain, desberdintasunak errespetatzen ikas dezaten gorputza lantzea bultzatzen du ere. Orobat, aniztasuna eta afektuzko harremana indartu, bi sexuen artean eta diskriminazioaren aurka jokatu eta errespetuzko eta tolerantziatzko garapena eta harremanak sustatzen ditu<sup>7</sup>.

Eskolak eskaintzen duen hezkuntza sexuala legeria bati lotuta dagoela azpimarratu ostean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan fokatzeko beharra dago.

### **1.5. Hezkuntza sexuala Haur Hezkuntzako bigarren zikloan**

Eskolak, familiak eta gizarteak hezkuntza sexual egokia eskaintzeko erantzukizuna dute eta hirurak elkar koordinatuta egotea beharrezkoa da hezkuntza sexual egokia eskaintzeko (Area eta Díaz, 2009). Hori lortzeko sexualitatearen osagai guztien (afektu sexuala, ongizate mental, fisiko eta soziala, plazera, sentimenduak, komunikazioa...) trataeraz arduratu beharko litzateke. Baita haurrak izaki sexuatuak moduan era osasuntsu, aske, zoriontsu eta arduratsuan garatzeko beharrezkoak diren osagaiak barnean hartzeko ardura izan beharko luke ere.

Halere, ezinbestekoa da hurrengoaz ohartzea: eskolan hezkuntza sexuala bi eratan eskaintzen da, era formalean eta ere era intzidentalean, eta bien arteko koordinazio egokia premiatzkoa da (Bolaños et al., 2008). Izan ere, haurrek programatutako hezkuntzaz ikasten dutenaz gain, intzidentalki ematen den hezkuntza sexuala hautemateko gaitasun handia dute (Fernández, 1982), era inplizituan esaten eta isiltzen diren hitzekin, keinuekin, besarkadekin, laztanekin... (Magister, 2011). Hezkuntza sexual formala ez eskaintzean, edo sexualitatea ukatzean, hezkuntza sexual jakin bat ere zabaltzen da (Ferren, 1988).

Ildo beretik, hezkuntza sexuala eskaintzeko zein teknika erabili behar den jakiteko haurra entzun, ulertu eta bere adierazpena behatu eta kontutan hartu behar da. Horretarako beharrezkoa da afektuzko giroa eta binkulua sortzea eta kalitatezko harremana izatea (Morales eta Guijarro, 2003). Eskolan horren erantzule nagusietako bat irakaslea da, bera baita hezkuntza integrala eta eredu egokia eskaini behar duena<sup>8</sup>.

---

<sup>7</sup> Hezkuntza sexualak Espainiako 1978ko konstituzioarekin, LOMCErekin eta Haur Hezkuntzako Curriculumarekin duen lotura zehatza ikusteko 6. eranskinera jo.

<sup>8</sup> Irakaslearen paper egokia zein den ikusteko 5. eranskinera jo.

Aldi berean, argi eduki behar da haurra eskolan sartzean, izaki sexuatuak izaten jarraitzen duela, bere izate, interes eta manifestazio sexual guztiekin. Beraz, garrantzia eskaini behar zaie behar sexual horiei eta baita haurraren garapen integralari; hezkuntzaren eginkizuna haurren garapen integrala posible egitea baita (Bolaños et al., 2008). Bestalde, kontuan hartzekoa da haurrak hezkuntza sexuala bizitza osoan bereganatzen duela eta eskola eta familiaren esku dagoela iragarkietan, jostailuetan, abestietan... agertzen den beste hezkuntza mota bat eskaintzea.

Hezkuntza sexuala Lehen Hezkuntzan soilik eman behar dela uste dute batzuk, gai artekotasunean landu gabe eta batez ere ugalketan zentratuz. Aitzitik, zenbat eta goizago lantzen hasi, orduan eta arrakastatsuago izango da hezkuntza sexualak planteatzen dituen helburuen lorpena (Hurtado et al., 2011). Beraz, lehenengo urteetatik hezkuntza sexuala ematea egokia da, eta gainerako etapetan jarraitzea ere beharrezkoa da (Andaluziako junta, 1999). Gainera, hezkuntza sexuala Haur Hezkuntzan lantzea premiazkoa da, sexualitatearen bizipena eta adierazpena pertsonalitatearen konfigurazioan (autokontzeptuan) eta auto-onarpenean (autoestiman) eragina duelako (Area eta Díaz, 2009).

Horrez gain, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualak sexu identitatearen eta genero identitatearen formakuntzan, identifikazioan, aurkikuntzan, orientazioan eta balorazioan laguntzen du, baita rol maskulino eta femeninoen eraikuntzan eta genero diskriminazioen aurka egiten. Are gehiago, sexualitatearen garapenean laguntzen du, desberdintasun sexualak eta rol dibertsitatea errespetatuz (Magister, 2011).

Hortaz, hezkuntza sexuala hezkuntza integrala eskaintzeko aurre pausu bat da, ikasleek era positiboan izaki sexuak direla asumitzeko, bere sexualitatea era osasuntsuan bizitzeko eta harreman interpersonalak asetzailerak eta ez-diskriminatzaileak izateko (Area eta Díaz, 2009). Horren bestez, hezkuntza sexualaren erronka haurrek autonomia pertsonala eta emozionala bereganatzea, arduratsuak izatea, afektibitatearen eta adierazpenaren garapena lortzea, zaintzaren etika garatzea, enpatia eta genero indarkeria prebenitzea dira (Area eta Díaz, 2009).<sup>9</sup>

Sexualitatea haurren berezko ezaugarria dela ikusita (Gómez-Zapiain, 2013), eta Haur Hezkuntzan aipatu den justifikazio legala irizpidetzat hartuta, haurrek dituzten behar sexualak eta ezaugarri sexualak errespetatu behar dira. Gainera, eskola eta irakasleen ardura izango da, hezkuntza sexual egokia transmititzea, familiarekin elkarlanean eta

---

<sup>9</sup> Hezkuntza sexualaren zehaztasun gehiago ikusteko 7. eranskinera jo.

gizartearen egoera kontuan hartuz. Hori guztia ikusita, Gradu Amaierako Lan honen helburua haurren sexualitatea ikertzean datza, haurren eta irakasleen testigantzetan zentratuz, hezkuntza sexuala hezkuntza behar bat den edo ez ikertzeko. Izan ere, hezkuntza sexuala eskaintzeko, aldeztatik haurren sexualitatearen nondik norakoak aztertu beharra dago. Azpi helburuak honako hauek dira:

1. Haur Hezkuntzako haurrek sexualitatearen inguruan dituzten ezagutzak, jarrerak, jokabideak eta interesak ikertzea.
2. Eskolak Haur Hezkuntzan hezkuntza sexualaren beharra duen edo ez ondorioztatzea, eta hori burutzeko irakasleek formakuntza nahikoa duten edo ez ikertzea.

Helburu bi hauei jarraituz, eta aurretik marko teorikoan jaso izan den informazioa kontuan hartuta, ikerketa lana gidatuko duten hipotesiak bi blokeetan banatu dira.

## 1.6. Hipotesiak

**1 Blokea:** Haurrak sexualak dira, sexualitatearen inguruko ezagutzak, jarrerak, jokabideak eta interesak dituzte.

**H1:** HHko haurrek sexu identitatea eta genero identitatea nahastuko dute.

**H2:** HHko haurrek ez dute sexuaren iraunkortasuna barneratuta izango.

**H3:** HHko haurrak identitate sexuala deskribatzeko genero estereotipoetan oinarrituko dira.

**H4:** HHko haurren manifestazio autoerotikoak helduek erreprimituak izango dira, ondorioz, haurrek debekuan oinarritutako moral heteronomoa izango dute.

**H5:** HHko haurrek sexualitatearen inguruan interesa izango dute, baina informazio gutxi, nahasia eta “tabu” moduan bereganatuko dute.

**H6:** HHko haurrek harreman sexual batzuen inguruan bizipenak eta ezagutzak izango dituzte, eta harremanen inguruan estereotipoak barneratuta izango dituzte.

**2 Blokea:** Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualaren beharra dago.

**H7:** Irakasleek sexua eta sexualitateari buruzko zenbait kontzeptu nahastuko dituzte.

**H8:** Irakasleek hezkuntza sexuala beharrezkoa dela uste izango dute.

**H9:** Irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzeko zailtasunak izango dituzte.

**H10:** Irakasleek sexualitatea eta hezkuntza sexualarekiko duten jarrera kontserbatzailea (López eta Fuertes, 1993) izango da.

**H11:** Irakasleen prestakuntza hezkuntza sexualaren inguruan urria izango da.

**H12:** Eskolak hiru erronkei aurre egin beharko die; dibertsitate sexuala, emakumeekiko diskriminazioa eta familia aniztasunari (Iturbe, 2015).

## **2. Metodologia eta lanaren garapena**

GRAL honen helburuak betetzeko, ikerketa kualitatiboa erabili da; fenomeno sozial eta hezigarriak ulertzen saiatzen delako (Sandín, 2003), eta errealitatera hurbiltzeko aukera ematen duelako (Dorio, Sabariego eta Massot, 2004). Ikerketa kualitatiboak testuingurua bere berezko forma naturalean behatzea eskatzen du. Horrek lanean teknika interaktibo, malgu eta irekiak erabiltzera behartzen du (Dorio et al., 2004).

Nabarmendu beharra dago orain arte haur sexualitatearen inguruan ikertu dena haurren guraso edo irakasleengan behatutakoan, edo helduen eta gazteen oroitzapenetan zentratu dela (López, 2014). Beraz, ikerketa honen helburua aztertzailea izango da, gutxi ikertuta dagoen arlo baten inguruan ezaugarri eta fenomenoak identifikatzera eta deskribatzera orientatuta dagoelako, ezagutza berria lortu nahian (Sabariego eta Bisquerra, 2004).

### **2.1. Tresna**

Galdera ireki eta itxien bidez osatutako bi elkarrizketa erdi-estrukturatu erabili dira, ikerketarako bereziki sortuak. Hauei esker, ikertuak izango diren subjektuek haien esperientziak adierazi ahalko dituzte (Vargas, 2012). Elkarrizketek pertsonen alde mental eta harreman sozialak aztertze aukera eskaintzen dute, subjektuen alde bitalera heltzea ahalbidetuz (López Estrada eta Pierre, 2011). Hori dela eta, elkarrizketa bitartekari ezin hobea da bai haurren jarrerak, pentsaerak eta ezagutzak diagnostikatzeko, bai irakasleek dituztenak ezagutzeko.

Haurren elkarrizketak, galdera indibidualez eta taldean egiteko galderez osatua, sexua, sexualitatea, autoerotismoa, ugalketa eta harremanen inguruko galderak bildu ditu (ikus 8. eranskina). Irakasleen elkarrizketan, hainbat kontzeptuen, formakuntzaren, hezkuntza sexualarekiko duten jarreraren eta esku-hartzeen inguruan galdetu zaie, hezkuntza sexuala beharrezkoa den edo ez frogatzeko (ikus 9. eranskina).

Horrez gain, behaketak ere garrantzi handia hartu du, honek ageriko errealitatearen nahitako pertzepzioari dagokion interpretazio zientifikoa eratzen saiatzen den prozedura baita (Herran, 2010). Behaketa haurren emozioak, jarrerak eta keinuez jabetzeko erabili da eta tematikoa izan da. “Se hacen observaciones temáticas cuando se observa la vida de un grupo o de varios niños desde un punto de vista específico. Se puede hacer para

un estudio, una investigación o bien para controlar y mejorar el propio trabajo” (Tardos, 1998; 77. orr).

## 2.2. Parte hartzaileak

Ikerketa Galdakaoko (Bizkaia, EAE) udalerriko eskola publiko batean kokatu da, III. Practicuma gauzatzen ari zen eskola bera izanik. Elkarrizketa egiteko, ikasleentzako galdera indibidualetan 30 hurreko lagina hartu da eta taldeko galderak egiteko 84 hurreko lagina hartu da (ikus 1. taula).

Jaiotza	Elkarrizketa indibidualak		Taldeko elkarrizketak	
	Neska kopurua	Mutil kopurua	Neska kopurua	Mutil kopurua
2013	5	5	12	13
2012	5	5	8	11
2011	5	5	17	23

Taula 1. Ikasleen elkarrizketa indibidual eta taldeko elkarrizketak egiteko erabili den lagina

Irakasleen elkarrizketetan 3 irakaslek hartu dute parte, hirurak emakumeak eta Haur Hezkuntzan 20 urte baino gehiago lan egin dutenak. Irakasle bakoitzari kode bat eman zaio datu pertsonal babesteko. A moduan izendatuko den irakaslea 3 urteko gelako tutorea zen. B irakaslea orain dela bi urte eskolara heldutakoa zen eta 5 urteko gelako tutorea zen. Azkenik, D irakaslea eta Haur Hezkuntzako koordinatzailea, 4 urteko gelako tutorea zen.

## 2.3. Prozedura

Haur zein irakasleentzako elkarrizketen galderak behin sortuta, Saioa Hernandez sexologoa eta psikologoaren eta Inge Axpe UVP/EHUko psikologiako irakaslearen iritzia eskatu da, horiek zuzendu eta hobetzeko.

Hurrei elkarrizketak egiteko, alde zuzenetik gurasoei idatzizko baimena (ikus 10. eranskina) sinatzea eskatu zaie, borondatezko eran.

Elkarrizketa indibidualak burutzeko haurrak ikerketa gelaraino lagunduak izan dira eta taldeko elkarrizketetan hurrek gelan korroan jesarrita itxaron dute. Irakasleen elkarrizketa egiteko gela prestatu eta irakasleei, banaka, etortzeko gonbidatu zaie.

Haurren elkarrizketa indibidualen iraupena 8-15 minutukoa izan da, taldekoak 13-30 minutukoa eta irakasleei egindako elkarrizketak 14-23 minutu inguru iraun dute.



Elkarrizketa guztietan materiala aldez aurretik prest egon da eta parte-hartzaile guztiei ahotsa grabatu zaie. Aipatzekoa da, ikasleen elkarrizketak korro ordutegian, eskola-ordutegi barruan, egin direla. Aldiz, irakasleei egindako elkarrizketak eskolaz kanpoko ordutegian egin dira<sup>10</sup>. Ikasleen elkarrizketetan lortutako datuak biltzeko transkripzioak eta transkripzioen taula bat egin da (ikus 11. eranskina), eta irakasleen datuak biltzeko elkarrizketaren gidoia erabili da (ikus 12. eranskina).

### 3. Emaitzak

Atal honetan elkarrizketen bidez jaso diren datuak eskainiko dira, aurretik ezarri diren hipotesiekin alderatuz horiek egiaztatu diren edo ez ikusteko. Nabarmentzekoa da azalduko diren emaitza guztiak hartutako laginari mugatzen direla. Lortu den datu kopuru handia izanda, atal honetan laburpen bat eskainiko da, beraz informazioa osatzeko, eranskinetara jotzea gomendatzen da.

#### 3.1. Lehenengo blokearen emaitzak

Lanaren lehenengo helburua haurren sexualitatea ikertzea zen, eta hori kontuan izanda, Haur Hezkuntzako haurrak izaki sexualak direla planteatu da, sexualitatearen inguruko ezagutzak, jarrerak, jokabideak eta interesak agertuko dituztela pentsatuz. Izan ere, hasierako uste hau bete izan da, ondorengo hipotesien azalpenean ikusiko den moduan.

**H1:** *HHko haurrek sexu identitatea eta genero identitatea nahastuko dute.*

Haurren % 100 biologikoki ezarria duen sexuarekin identifikatu da (datuak osatzeko, jo 13. eranskinera). Hala ere, emaitzak ikusita, espero bezala, haurren gehiengoak sexu eta genero identitatea nahastu du (ikus 14. eranskina). Haurren % 10k bere sexu identitatea deskribatzeko ezaugarri sexualak erabili ditu “*zergatik zara neska/mutila*” galderari mota honetako erantzuna eskainiz: “*pitilina daukadalako*”. Aldiz, % 40k generoari dagozkion arrazoiak eman ditu (ilearen luzaera, gimnasia erritmikoa ez egitea...). Aipatu beharra dago % 23,33k ez duela erantzun, eta % 26,66k sexua eta generoarekin zerikusia ez duen zerbait erantzun du (“*amak esan didalako*”).

**H2:** *HHko haurrek ez dute sexuaren iraunkortasuna barneratuta izango.*

Elkarrizketak behin burututa, 2013ko, 2012ko eta 2011ko haurren % 90k sexuaren iraunkortasuna barneratu gabe duela ikusi da, arropen aldaketa eginda, sexua aldatzen

<sup>10</sup> Jarraitu den prozeduraren inguruan zehaztapen gehiago izateko 10. eranskinera jo.

dela esan baitute. Lagin osoan bi hurrek bakarrik (% 6,66) sexuaren iraunkortasuna agertu dute. Zehazki esanda, 2012ko neska bat eta 2013ko mutil bat (ikus 15. eranskina).

**H3:** *HHko haurrak identitate sexuala deskribatzeko genero estereotipoetan oinarrituko dira.*

Hipotesi hau frogatzeko taldeko elkarrizketak egin dira. Horietan hurrek argi utzi dute hipotesi hau baieztatu dela. Izan ere, 4, 5 eta 6 urteko hurrek genero estereotipo zorrotzak erabiltzen dituzten sexu identitateak deskribatzeko, baita 3 urteko haur batzuk ere, nahiz eta azken hauetan horren nabaria ez izan (datuak osatzeko 16. eranskinera jo). 2011 urteko hurrek neskak nolakoak diren deskribatzean, batzuentzat neska batzuk ausartak ez direla eta gehiengoek neskak indartsuak ez direla esaten dute (“*Neskak ez dira indartsuak baina mutilak bai, ba ze dekote bola*”). Mutilaren irudia ere estereotipatua da, mutil gihartsua eta indartsua deskribatzen baitute. Dena den, badaude neskak indartsuak eta ausartak direla esaten dutenak. 2012 ureko hurrek neskaren irudia deskribatzeko ere estereotipoak erabiltzen dituzte; neskak super-heroiak ezin daitezkeela izan uste duten haurrak, eta neskak indartsuak ez direla esaten duten haurrak baitaude. Mutilaren irudia ere estereotipatua izaten jarraitzen du, “*azkarrak, gogorrak, super azkar eta super indartsuak edo super-heroiak*” direla esaten baitute; neskei, aldiz, ez dizkiete ezaugarri horiek atxikitzen. Dena den, badaude neskak eta mutilak berdina direla esaten duten haurrak. Amaitzeko, esan beharra dago, 2013 urteko hurrek neska eta mutilaren irudia deskribatzeko ez dutela 2012 eta 2011 urteko bezain besteko desberdintasunak aipatzen, eta ez direla hainbeste genero estereotipoetan oinarritzen. Halaber, badago neskak korrika egiten ez dakitela uste duen haurra.

**H4:** *HHko haurren manifestazio autoerotikoak helduek erreprimituak izango dira, ondorioz, hurrek debekuan oinarritutako moral heteronomoa izango dute.*

Galdera honen bidez esan daiteke hurrek manifestazio autoerotikoak dituztela, gehiengoak, % 46,66, bere genitalak ukitzen dituelako, nahiz eta %71,42 helburu autoerotiko batekin egiten duela ez esan. Gainera, onartu behar da % 40k ez dituela ukitzen esan duela, eta % 13,33k ez duela erantzun. Hala ere, aurretik planteatutako ustea bete dela esan daiteke, izan ere, haurren behar sexualak debekuen eta inposizioen bidez (“*hori ez da egiten*”), ideia negatiboak transmitituz (adibidez; aluak usain txarra daukala esanez, “*ez izan zikoitza*”...) eta beldurren transmisioaren ondorioz (gaixotuko

direla esan diete, txarra dela...) erreprimituak izaten dira (neska bati ez zaio alua ukitzea gustatzen amak “*cochinada*” bat dela esaten diolako). Bitartean, guraso batzuk ez diete ezer esaten eta beste gutxi batzuk naturaltasunez jokatzeko dutela ondorioztatu daiteke. Agian horregatik genitalak ukitzen duten haurren %20k askatasunez egiten du (ikus 17. eranskina). Ondorioz, haurrek debekuan, beldurretan eta ideia negatiboetan oinarritzen dute haien manifestazio sexualen arautzea. Izan ere, gurasoek eskaintako arazoak erabiltzen dituzte haien jokabidea erregulatzeko, haien moral aurrekonbentzional eta heteronomoaren adierazlea dena. Hau da, gehienek ez dakite zergatik ez duten genitalak ukitu behar, baina hala ere debekua onartu eta barneratu dute, eta arazoia ematekotan, helduek eskaintako zentzugabekeriei jo behar dute (“*cochinada*” bat delako, gaixotzen zarelako, egiten ez delako...).

Debekuak debeku, umeak sexuatuak izaten jarritzen dute, eta beraz, haien sexualitatea oinarritzeko behar bat izanik, espresatzeko eta manifestatzeko beharra dute. Hortaz, hainbatek haien beharra betetzeko eta aldi berean, helduen debekuei jarraitzeko modu originalak topatzeko gai izan dira: mutil batek zakila ukitzeko arin egiten duela edo hankak igurtziz ukitzen duela dio, eta neska batek leotardoan ginetik. Beste mutil batek dutxan bakarrik ukitzen du eta bestela, dutxatik at ukitu behar duenean prakekin egiten du, hori ez egitekotan bere amak errieta egiten diolako hori ez dela egiten esanez.

Zentzu honetan, nabarmendu behar da jarrera irekia eta naturala erakusten duten gurasoen kasua. Hori horrela denean, honek isla argia du haurrengan. Hau haur baten erantzunean susmatu daiteke; honek ez zuen, bere beste kideek bezala, inolako barne gatazkari aurre egin behar izan bere barneko beharrak eta helduen debekuak betetzeko. Izan ere, bere jokabidea arautzeko ez zuen ezkutuko jokabideak egitera jo behar (azkar ukitzea, arropa ginetik ukitzea, hankeikin igurtzea...), manifestazio autoerotikoak txarrak edo saihestu beharrekoak izango balira bezala, hauekiko beldurra, nazka bezalako sentimenduak garatuz. Oso kontrakoa, haur honek, naturaltasun osoz, argi zuen, ziurrenez gurasoei esker “etxean ahal zuela zakila ukitu baina kanpoan ez”. Beraz, ez du moral heteronomoa erakusten, arau propioak sortzeko gaitasuna baitu. Ziurrenez honek manifestazio autoerotikoak askoz naturaltasun handiagoz bizitzeko aukera emango zion.

Laburbilduz, hipotesia baieztatu egin dela esan daiteke; haurrak sexualak izanda eta manifestazio autoerotikoak izanda, hauek erreprimitzen ikasten dute, baina arautze hori, haien moral heteronomoa dela eta, helduek ezarritako debekuetan oinarritzen dute, horiek benetan ulertu gabe. Zorritzarez debeku horietako askok beldur, zikinkerian eta

horrelako ezaugarri negatiboetan oinarritzen dira, sexualitatea zerbait desegoki, zikin edo saihestu beharreko jokabide bezala ulertzera eraman dezaketenak, haurrek sexualitatea naturaltasunez bizitzeko aukera murriztuz.

**H5:** *HHko haurrek sexualitatearen inguruan interesa izango dute, baina informazio gutxi, nahasia eta “tabu” moduan bereganatuko dute.*

Jasotako erantzunak ikusita, hipotesi hau baieztatu dela esan daiteke. Izan ere, haurrek zenbait gai sexualen inguruan interesa dute, eta gai horiekiko informazio nahasia eta urria agertzen dute. Adibidez, elkarrizketatutako % 60ri haurrak nondik jaiotzen diren eta nola sortzen diren jakitea gustatuko litzaioke. Gainera, gai hauen inguruan duten informazioa nahasia da: *“Mutilen arrauts batekin jaiotzen dira haurrak”*; *“Ba orduen medikuek sartzen dio eh... eh... txertoa eta orduen eh... jaio eh... dago hortxe arrautza botatzen dio arrautza eta jaiotzen da umea”* eta “tabu” moduan tratatzen da, adibidez espermatozoideari hazia deituz, edo hurrei gai hauek ez azalduz *“amak ez dit esaten”* (ikus 18. eranskina).

**H6:** *HHko haurrek harreman sexual batzuen inguruan bizipenak eta ezagutzak izango dituzte, eta harremanen inguruan estereotipoak barneratuta izango dituzte.*

Banakako eta taldeko elkarrizketei esker haurrek harreman sexual batzuen inguruan bizipenak dituztela eta horien inguruan zenbait ezagutza dituztela frogatu da: *“Izoko eta osaba, eta ama eta aita ezkontzen dira”*, *“Aita emoten dit musua ezpainetan. Bere txikia nazelako”*, *“Dibortsiatu norbaitekin haserretzea da”*...

Bestalde, hipotesian planteatu izan den moduan, maitasuna, ezkontza eta bikote homosexual eta heterosexualeen inguruan estereotipo zorrotzak dituzte. Izan ere, bikote heterosexualeen inguruan ez dute iritzi negatiborik, aldiz mutilez osatutako bikote homosexualen inguruan % 13,33k iritzi negatiboa du eta bikote homosexual lesbianen inguruan % 13,33k iritzi negatiboa du.

Bestalde, espero bezala, hainbat haurrek harremanen inguruko iritzi estereotipatuak agertu dituzte. Adibidez, % 3,33k, hau da, haur bakar batek, baino ez du uste erakutsi zaien bikote heterosexuala bikotea ez dela. Aldiz, % 46,66k erakutsi zaien bikote gaya bikotea ez dela uste izan du, eta % 30k uste bera izan du erakutsi zaien bikote lesbianarekin. Gainera, batzuk ziurtasunez esaten dute bikote heterosexuala bikoteak direla, baina bikote homosexualen inguruan hitz egiterakoan *“bikoteak izango direla”* esaten dute zalantza adieraziz. Horrez gain, kasu batzuetan, haien iritzia azaltzeko

bestelako ideia estereotipatu batzuk gehitu dituzte; adibidez, haur batek bikote heterosexualerako mutilak neska musukatzen duena dela uste izan du, nahiz eta erakutsi zaion argazkiak elkarrenganako ekintza bat erakusten duen (ikus 19. eranskina).

### 3.2. Bigarren blokearen emaitzak

Lanaren bigarren helburuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualaren beharra dagoen edo ez ikertzea planteatu da. Horrekin lotuta, behar hori egongo zela uste izan da, eta, emaitzak behin aztertuta, behar hori erreal dela ondorioztatu da, ondorengo hipotesien azalpenean ikusiko den moduan (ikus 20. eranskina datuak osatzeko).

**H7:** *Irakasleek sexua eta sexualitateari buruzko zenbait kontzeptu nahastuko dituzte.*

Hasierako hipotesian planteatu ez bezala, irakasleek ez dute kontzepturik nahastu. Izan ere, elkarrizketatutako irakasle guztiak sexualitatea, maitasuna, homosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea eta plazera zer den definitzeko gai izan dira, nahiz eta kontzeptu batzuetan azaltzeko zaitasunak izan: “*Ez dakit, oso zaila egiten da transexualitateari buruz hitz egitea, sexu bat izan beste bat sentidu...*” (ikus 21. eranskina).

**H8:** *Irakasleek hezkuntza sexuala beharrezkoa dela uste izango dute.*

Hipotesiarekin bat etorritik, elkarrizketatutako irakasleen % 100k hezkuntza sexuala beharrezkoa dela uste du (ikus 22. eranskina).

**H9:** *Irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzeko zailtasunak izango dituzte.*

Hipotesian espero bezala, irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzean zenbait zailtasun dituzte. Irakasleek jarraibide falta (A irakasleak hezkuntza sexuala eskaintzeko ez dietela pautarik ematen azaldu du), formakuntza falta, esku-hartzeko zailtasunak (B irakasleak estrategia eta informazio falta dagoela azaldu du, Ak abusu sexualak jasaten ari den haur bat detektatzeko ez duela bere burua gai ikusten eta D irakasleak gainerako irakasleen formazioa nahikoa ez dela, besteak beste) eta eskolan protokolo eta proiektu falta nabaritu dute. Baita gizarteak transmititzen dituen eredu estereotipoen aurre egiteko zailtasuna eta eskolan dagoen aniztasun handiari aurre egiteko zailtasuna sumatu dute (ikus 23. eranskina).

**H10:** *Irakasleek sexualitatea eta hezkuntza sexualarekiko duten jarrera kontserbatzailea (López eta Fuertes, 1993) izango da.*

Hipotesian espero ez bezala, irakasleen % 100 ez du jarrera kontserbatzailea (López eta Fuertes, 1993) izan. Elkarrizketatutako irakasleen % 66,66 jarrera “liberal irekia” erakutsi du, aitzitik irakasleen % 33,33 jarrera kontserbatzailea, hain zuzen ere, naturaltasun faltua erakutsi du (ikus 24. eranskina); hurren jokabide autoerotikoen aurrean emandako hurrengo erantzunak erakusten duen moduan: “*Begirutzen geratzea askotan ateratzen zait, eta segun zer egiten gauden hitz egiten dut berarekin ala uzten diot bakean, ez ikusiarena egiten dut*”.

**H11:** *Irakasleen prestakuntza hezkuntza sexualaren inguruan urria izango da.*

Hipotesian espero ez zen bezala, elkarrizketatutako irakasleek ez dute prestakuntza urririk izan; alabaina, A eta D irakasleek eskola barruan eta eskolatik kanpo formakuntza bereganatu dute eta B irakasleak eskolak prestatutako formakuntza saioetan parte-hartu du. Hots, nahiz eta irakasleen gehiengoak haien formakuntza nahikoa ez dela esan duen, elkarrizketatutako irakasleen formakuntza ezin da urritzat hartu (ikus 25. eranskina).

Halere, esan berri den moduan, elkarrizketatutako irakasleen ustetan, % 66,66k formakuntza nahikorik ez duela uste du. Are gehiago, elkarrizketatutako irakasleen %33,33k eskolan gainerako irakasleen formakuntza oso eskasa dela uste du, % 33,33 “nahikoa” dela aipatu du eta % 33,33k ez du nahikotzat jo.

**H12:** *Eskolak hiru erronkei aurre egin beharko die; dibertsitate sexuala, emakumeekiko diskriminazioa eta familia aniztasunari (Iturbe, 2015).*

Hipotesian eskolak hiru erronkei heldu behar diola aurreratzen zen (Iturbek, 2015), baina emaitzen bidez ezin izan da hau baieztatu. Edonola ere, argi gelditu da hainbat erronka egon, badaudela, eta eskolak horiei heldu behar diela, adibidez: estereotipo sexistei, honek suposatzen duen emakumeekiko eta mutilekiko diskriminazioari, edo familia aniztasunari. Honetaz ohartzeko, irakasleei egindako elkarrizketetan jasotako informazioa erabili beharrean, haurrekin egin izan diren elkarrizketetan behatutakoa kontuan hartu da. Zentzu honetan, umeekin aurrera eraman izan diren elkarrizketetan argia izan da hurrek eskolan haien sexualitatea adierazten dutela. Adibidez, panpinak zaintzea gustuko duten mutilak agertu dira, panpinekin jolastea gustuko ez duten neskak, azazkalak margotzea gustatzen zaien haurrak... Adibide horietan haurrak haien

sexualitatea manifestatzen daude eta eskolaren beste erronketako bat manifestazio horiek errespetatzea eta era librean adierazi ahal izatea da. Era berean, estereotipo zorrotzak ikusi dira, bai neska zein mutilekiko: karrotxoa neskena dela uste dute haur batzuk; mutil bati karrotxoa eramatea lotsa ematen dio... Horrez gain, familia aniztasuna elkarrizketa indibidualetan parte-hartu duten haurren artean agertu da, familia nuklearrak eta gurasobakarra agertu baitira, eredu berri hauek eskolan lantzearen beharra islatuz (ikus 26. eranskina).

#### 4. Ondorioak

Lanaren azken atal honi heltzeko, emaitzetan egin izan den bezala, lanaren bi helburuei erreferentzia egingo zaio; hau da, haurren sexualitatearen inguruko ikerketa egitea eta ea Haur Hezkuntzako etapak hezkuntza sexualaren beharra duen ondorioztatzea. Helburu hauek uste edo hipotesi ezberdinen sorburu izan dira, eta, haurrei eta irakasleei egindako elkarrizketen bidez jaso diren emaitzak ikusita, hipotesi nagusienak; hots, haurrak sexualak direla (sexualitatearen inguruko ezagutzak, jarrerak, jokabideak eta interesak edukiz) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualaren beharra dagoela, baieztatu izan dira.

Izan ere, lehenengo hipotesi nagusiari dagokionez (haurrak izaki sexualak izatea), hainbat momentutan ikusgarria izan da.

Elkarrizketatutako haur guztiek haien sexuarekin bat zetorren identitate sexuala erakutsi dute, hau goiz ematen den identifikazio eta klasifikazio bat baita, “Ni”an txertatuta dagoen kategoria bat (Gómez-Zapiain, 2013). Hala ere, Haur Hezkuntzan, espero zen bezala, oraindik identitate sexuala eta genero identitatea nahasten dute; alabaina, haur askok haien sexua justifikatzeko, kanpoko eta aldagarriak diren ezaugarriei egiten diete erreferentzia, genero barruan kokatuko liratekeenak; janzkera, orrazkera, jostailuen erabilera... Identitate bi hauen eraketa 2 eta 6 urte bitartean sortzen da (Gómez-Zapiain, 2013), eta, ikusi izan den moduan, gizarteak inposatutako estereotipoen eragin zuzena jasotzen du. Haatik, espero zen bezala, adin hauetan sexua ez da, oraindik, iraunkorra. Hau da, elkarrizketatutako % 93,33k ez du sexuaren iraunkortasuna barneratu (Gómez-Zapiain, 2013), beraz kanpoko ezaugarri edo itxura aldatzean, arazo barik pertsonaren sexua aldatu dela esan dezakete.

Bestetik, argi ikusi da haurrek manifestazio autoerotikoak dituztela, baina gehienetan helduen aldetik hauek erreprimitzeko eskatzen zaiela, eskaintzen diren arazoak desegokiak izanda (debekua argudiorik gabe, gaixotasuna edo zikinkeria azpimarratuz).

Emaitza hauek Camarero et al.-en (1987) lanarekin bat datoz; oraindik haurren afektibitatea eta sexualitatea erreprimitzen dela ikusi izan baita. Haurrei haien gorputza arakatzeko eskubidea ezeztatzen zaie eta txikitatik haien aktibitate masturbatzaileak zuzentzen dira: haien jarrerak zigortuak izaten dira eta beldurrak transmititzen zaie (Camarero et al., 1987).

Baieztatu izan den beste uste bat haurren sexualitatearekiko interesa izan da. Baina, zoritzarrez, elkarrizketetan ikusi izan den bezala, jasotzen duten informazioa askotan gutxi, nahasia eta “tabu” moduan eskaintzen zaie, edo estereotipoz beteta dago. Argia izan da, adibidez, harreman afektibo-sexualaren pausuak aurrezarrirako eredutan oinarritzen direla, gizartean indarrean dagoen “ereduan”; batez ere eredu heterosexualean, egon daitezkeen beste aukerak, harremanak edo loturak gaitzetsiz (Camarero, et al., 1987). Aipatzekoa da ere, eredu honetan gizonaren inizatiba sexuala faboratu egiten dela; gizona afektiboki intsinuatu behar dena da, emakumea bilatu eta aukeratzeko duena... Harrigarria bada ere, adin honetan jada haur batzuk horrelako estereotipoak barneratzen hasi dira; adibidez elkarrizketetan haur batek bikote heterosexualeko argazkian mutilak neskari musu egoten zegoela esan du, nahiz eta elkarrenganako ekintza bat izan.

Bestetik, bigarren hipotesiari dagokionez, hau da, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualaren beharra dagoela, hori ere, aurretik ikusi den bezala, baieztatu izan da. Hala eta guztiz ere, onartu egin behar da kasu honetan zenbait uste edo alde aurretik ezarritako hipotesiak ez direla, zorionez, bete.

Adibidez, elkarrizketatutako irakasleek sexua eta sexualitateari buruzko kontzeptuak era argian ezberdindu eta definitu dituzte, sexualitatearen inguruko ezagutza erakutsiz. Bestalde, haurren sexualitatearekiko erakutsi duten jarrera, López eta Fuertes (1993) sailkapena jarraituz, irekitzat deskribatu daiteke, nahiz eta kasu zehatz batzuetan agian era ez hain liberalean jokatu (ez ikusiarena egitea, adibidez). Azpimarratzekoa den datu bat irakasleen formakuntzari dagokiona da. Elkarrizketatu diren irakasleak ez dute, inolaz ere, sexualitateari buruzko formakuntza urririk agertu, kasu batzuetan oso zabala izan da. Hala ere, denek formakuntzaren beharra aldarrikatu dute, eta bat etorri dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexualaren behar izanarekin.

Horregatik, interesgarria da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hezkuntza sexuala lantzea. Modu honetan, eskolan eskaini daitekeen hezkuntza sexualaren bidez, hainbat onura lortu zitezkeen: sexualitate osasuntsua sustatzea, informazio objektibo ez hornitzea (Bolaños et al., 2008), sexualitatearen ikuspegi positiboa suspertzea



(Magister, 2011), haurrek haien sexualitatea askatasunez, segurtasunez eta beldur gabe bizi eta adierazten laguntzea (Magister, 2011), haurren sexualitatea onartua izaten erraztea (López, 2005) eta gorputza ezagutzen eta baloratzen laguntzea (Morales, et al., 2003), besteak beste.

Dena dela, hau lortzeko, irakasleen jarrera egokia behar ez ezik, prestakuntza eta informazioa beharko lukete, hainbat erronka eta zailtasunei aurre egin ahal izateko. Etsenpluz, gizartean dauden estereotipo zorrotzei aurre egin behar dietenean edo familia batzuen jarrera itxiekin topo egiten badute. Adibidez, lan honetan eskolako haur batek azazkalak margotu nahi izan zituen, baina argi zuen etxetik hori egiteko jasotako debekua. Azken zailtasun honetan ikusten den bezala, eskolak familiarekin harremanetan egon behar du (López, 2005). Familiak haurren gustu, euren sexualitatea bizitzeko moduan, izateko moduan... eragina baitaukate. Beraz, beharrezkoa da adostasun minimo batzuetara heltzea guraso eta eskolarekin egin behar den esku-hartzeari buruz (Ferren, 1988).

Amaitzeko, aipatu beharra dago Gradu Amaierako Lan honen helburuak bete izan direla uste bada ere, aldi berean hainbat muga izan dituela. Horietako bat ikerketa egiteko instrumentuari dagokio. Izan ere, ez dira 3-6 urteko haurrentzako hezkuntza sexualaren inguruko elkarrizketarik aurkitu, eta honek lan honetarako bereziki prestatutako bat sortzea ekarri du, honek suposa dezakeen mugekin. Halaber, ikerketan parte hartu izan duten pertsonen dagokionez, hobereana lagin handiagoa lortzea litzateke, 2. zikloko irakasle guztiei, haur gehiagori eta haur horien gurasoei elkarrizketatuz. Baina honek suposatuko zukeen zailtasuna aurreikusita (denbora aldetik, gurasoekin kontaktua lortzeko aldetik...), lana garatzeko momentuan, aipatutako haur eta irakasle lagina hartzea pentsatu zen. Honek beste muga bat suposatu du: lagina eskola bakar bati dagokio; hortaz, lortu diren emaitzak ezin izango lirateke beste eskoletara zabaldu, are gutxiago hezkuntza sistema osora. Lagin mugatua izanda ere, GRALa egiteko momentuan agertu den beste zailtasun handi bat jaso izan diren datuak kudeatzea izan da, informazio kopurua oso handia izan baita.

Hala eta guztiz ere, lan honen bidez haurren sexualitatearen inguruan sakontzea lortu dela uste da, eta eskoletan Haur Hezkuntzako etapatik hezkuntza sexuala eskaintzeko beharra dagoela frogatu dela pentsatu nahi da. Orain gelditzen den etorkizuneko erronka, hezkuntza hori benetan eta egunerokotasunean bermatzea litzateke.

**Erreferentzia bibliografikoak**

- Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (1978). Espainiako konstituzioa.
- Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (2013). 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.
- Andaluziako junta (1999). *Educación afectivo-sexual en la educación infantil. Guía para el profesorado*. Malaga: Consejería de Educación y Ciencia.
- Area, Manuel eta Díaz, Raúl. (2009). *Sexpresan, multimedia para la educación afectivo-sexual*. Guía didáctica. (2016/11/18). Hurrengo helbidetik hartuta: <http://www.harimaguada.org/sexpresan/>
- Bolaños, M<sup>a</sup> Carmen, González, M<sup>a</sup> Dolores, Jiménez, Manuel, Rodríguez, M<sup>a</sup> Isabel eta Vega, Teresa. (2008). *Nuestra sexualidad*. Tenerife.
- Bolaños, María Carmen, González, M<sup>a</sup> Dolores, Jiménez, Manuel, Ramos, María Elena eta Rodríguez, M<sup>a</sup> Isabel (1994). *Guía de formación de madres y padres. Educación afectivo-sexual en las etapas Infantil y primaria*. Kanariak: Gobierno de Canarias. Consejería de Educación, Cultura y Deportes. Dirección General de Ordenación e Innovación Educativa.
- Camarero, Carmen, Redondo, Euke eta Urruzola, M<sup>a</sup> José (1987). *Sexualidad en la escuela manual para educadoras*. 2. edizioa. Bartzelona: La Sal, edicions de les Dones.
- Castelo, Camil, de la Gándara, Jesús José eta Puigvert Ana Martínez (2005). La sexualidad en las diferentes etapas de vida. In Blümel, J. E, Castelo-Branco, C. eta Vallejo S. (2005). *Sexualidad humana una aproximación integral* (55-65. orr.). Espainia: Editorial médica Panamericana.
- Dorio, Inma, Sabariego, Marta eta Massot, Inés (2004). Características generales de la metodología cualitativa. In Rafael, Alzina et al. (2004). *Metodología de la investigación educativa* (275-292 orr.). Madril: Editorial La Muralla.
- Ertzaintza. (2013). Delitos y faltas conocidos por la ertzaintza por tipos según territorio. *Estadísticas Delictivas*. (2015/11/15). Hurrengo helbidetik hartuta: [https://www.ertzaintza.net/wps/portal/ertzaintza!/ut/p/c5/04\\_SB8K8xLLM9MSzPy8xBz9CP0os3gXDydTo2AzN0tLE9dAdxNzDxdzAwjQDwfpMIv39\\_EMw00dnR3NA119vIJDHQyhKkAyxvgAI4G-n4e-bmp-gXZ2WmOjoqKAATK2bg!/dl3/d3/L2dJQSEvUUt3QS9ZQnZ3LzZfSUYzSFVWRjAwR1VVMDBJN0ozUjdQQU9NNjI/](https://www.ertzaintza.net/wps/portal/ertzaintza!/ut/p/c5/04_SB8K8xLLM9MSzPy8xBz9CP0os3gXDydTo2AzN0tLE9dAdxNzDxdzAwjQDwfpMIv39_EMw00dnR3NA119vIJDHQyhKkAyxvgAI4G-n4e-bmp-gXZ2WmOjoqKAATK2bg!/dl3/d3/L2dJQSEvUUt3QS9ZQnZ3LzZfSUYzSFVWRjAwR1VVMDBJN0ozUjdQQU9NNjI/)

- Fernández, Pedro (1982). *Características y tratamiento de la sexualidad infantil, enfoque psicoanalítico Freudiano*. Madril: Narcea.
- Ferren, Ferran (1988). *Cómo educar la sexualidad en la escuela*. Bartzelona: Ceac
- Gómez, E. eta Esteva, I. (2006). *Ser transexual. Dirigido al paciente, a su familia, y al entorno sanitario, judicial y social*. Bartzelona: Glosa.
- Gómez-Zapiain, Javier (2013). *Psicología de la sexualidad*. Madril: Alianza Editorial.
- Gómez-Zapiain, Javier (d.g.). *La sexualidad infantil y el abuso sexual en la infancia desde la perspectiva del concepto y las actitudes hacia la sexualidad*.
- Grossman, A. H., D'Augelli, A. R., Howell, T. J., eta Hubbard, S. (2005). Parent' Reactions to Transgender Youth' Gender Nonconforming Expression and Identity. *Journal of Gay & Lesbian Social Services, 18(1)*, 3-16.
- Hernández, Graciela eta Jaramillo, Concepción (2003). *La educación sexual de la primera infancia. Guía para madres, padres y profesorado de educación infantil*. Espainia: Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministerioa.
- Herran, Elena (2010). Aucouturier Praktika Psikomotoreari Behaketa Metodologiaren aplikazio baten sistematizazioa. *TANTAK, 22(1)*, 113-126.
- Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila (2016). 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Haur Hezkuntzako curriculum, Heziberri. *Euskal Herriko agintaritzaren aldizkaria, (9)*, 1-47.
- Hurtado, Felipe, Pérez, María, Rubio, Eusebio, Coates, Rosemary, Coleman, Eli, Corona, Esther, Mazín, Rafael eta Horno, Pepa (2011). *Educación para la sexualidad con bases científicas. Documento del consenso de Madrid. Recomendaciones de un grupo internacional de expertos*. Madril.
- Iturbe, Xabier (2015). *Coeducar en la escuela infantil sexualidad amistad y sentimientos*. Bartzelona: Grao.
- Jauregizar, Joana (d.g.). *Atxikimendua ulertzen Hezkuntzaren ikuspuntutik*. UPV/EHU.
- López, Felix (2009). *La educación sexual*. Madril: Biblioteca nueva.
- López, Félix (2013). *La educación sexual de los hijos*. Madril: Piramide.
- López, Félix (2014). *Los abusos sexuales a menores y otras formas de maltrato sexual*. Madril: Síntesis.
- López, Félix eta Fuertes, Antonio (1993). *Para comprender la sexualidad*. Nafarroa: Verbo dibino.

- López, Raúl eta Pierre, Jean (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen: revista de trabajo social y ciencias sociales*, 61, 2-19.
- Magister (2011). Educación Infantil. *Magister*, 10. gaia, 1-48.
- Sandín, María Paz. (2003) *Investigación cualitativa en Educación. Fundamentos y tradiciones*. Madril: McGraw-Hill.
- Osasun, Zerbitzu Sozialak eta Berdintasunerako Ministerioa. (2015). Víctimas mortales por violencia de género. *Estadísticas, encuestas, estudios e investigaciones*. (2015/12/31). Hurrengo helbidetik hartuta:  
[http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/mortales/docs/VMortales\\_2015\\_31\\_12.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/mortales/docs/VMortales_2015_31_12.pdf)
- Padrón, M<sup>a</sup> del Mar, Fernández, Lola, Infante, Ana eta París, Ángela (2009). *Libro blanco sobre Educación Sexual de la provincia de Málaga*. Malaga.
- Sabariego, Marta eta Bisquerra, Rafael (2004). El proceso de investigación (Parte 1). In Rafael Alzina et al., (2004). *Metodología de la investigación educativa* (89-120 orr.). Madril: Editorial La Muralla.
- Tardos, Ana (1998). El rol de la observación en el trabajo educativo. *La Hamaca*, 9, 73-79.
- Vargas, Ileana (2012). La entrevista en la investigación cualitativa: nuevas tendencias y retos. *Calidad en la Educación Superior*, 3(1), 119-139.
- Vasco Press. (2014). Las denuncias por violencia machista en adolescentes y jóvenes vascos crecen un 15%. *El correo*. (2013/12/28). Hurrengo helbidetik hartuta:  
<http://www.elcorreo.com/vizcaya/20131228/mas-actualidad/sociedad/denuncias-violencia-machista-adolescentes-201312281357.html>

## **ERANSKINAK**

Oharra: ikus hurrengo fitxategia “Eranskinak” izendatuta dagoena.